

## PATRI URKIZUREKIN SOLASEAN



Herriko haurren lasterkak, baxoerdiak hartzen diharduten kuadrilen ibilerak, jainkotiarren elizarako urratsak, etxekoandreen joan-etorriak, balkoi-tako auzotarren soaldiak eta kanpai-hots durundatsuak Santo Kristo enparantzan topatzen diren bitartean, eliza pareko Paskual-enea etxean, ohar-kabeko lan isilean aritzen da ordu anitzez, mahai zabalaren aurrean, Patri Urkizu lezotar idazlea ehundaka liburuz beteriko gela xume zein erakar-garri batean.

Urteak joan, urteak etorri, eguneroko ihardunaren emaitza dagerkigu Patrik bataz beste urtean behin plazaratzen duen liburuan.

Herriko alkate izana, euskararen katedraduna, gaur egun UNED urruneko unibertsitatean irakasle titularra, Euskalerriko Idazleen Elkartearen lehendakari, frontoizale amorratua,... Alde askodun herritar kuttun honekin izandako solasaldia doakizu ondorengo lerrootan.

– Kontaiguzu zerbait zure haurtzaroz.

Lezoko San Juan kalean sortu ninduten 1946ko irailaren 2an, hau da, gerra hasi eta hamar urtetara.

Gure etxeko atzekaldean aitak lan egiten zuen potasa fabrika zegoen, eta pixkat haruntzago berriz, itsasertza. Anaiak, Iñaki, Joseba eta Joakin, oso arrantzaleak ziren, aita ere bai. Fabrikako errelebotik atera eta arrantzara joaten ziren egunero. Horri esker, gerra ondoko urte horietan etxean ez da goserik ezagutu.

Etxe ondoan hordartzatxo bat zegoen, eta hor ibiltzen ginen. Beraz, fabrika eta itsasertzean hasi nintzen.

Gogoratzen naiz etxe ondoan bagenuela txabola bat, eta bertan txerriak, oiloak eta honelakoak genituen, baita sagardo-kupela ere. Otorduan handik ekartzen genuen etxera sagardoa, pitarra edo zena zela.

Nere ama baserrikoa da, Olatzarkoa. Nere aita ez, eta aitaren ama Bordakoa. Beraz, kalean bizi izan arren, pixkat baserritarrak ere baginen; txerriak hiltzen genituenean, puskak etxean zintzilikatzen ziren eta..., badakizu, baserriko ohiturak.

Ba al duzu haurtzaroko oroitzapen berezirik?

Bai, beti geratzen dira haurtzaroko kontuak, jokoak eta horrelako gauzak. Lezon "marru-marruketan" nola jolasten genuen, frontoian "barrenetara"... Politik izaten ziren kaletar batzuren eta besteren arteko borrokak: San Juan kalekoak, kale Nagusikoak, e.a. Frontoian ere ibiltzen ginen: futboleak, pelotan...



Maiz joaten ginen gereziak biltzera, sagarrak lapurtzera... Tiragomarekin txori bila ere bai askotan.

– Noiz hasi zinen eskolan?

Beno, eskolan bost urterekin hasi nintzen. Garai hartan, Arantxa Berasartek bazuen eskola txiki bat Berasarte-enea gainean. Eta hor berrogeitamarren bat neska-mutil geunden. Eskola partikularra zen. Garai hartan eskola nazionalekoak ez ziren ondo ikusiak; maisuak espainiarrak ziren, oso erdaldunak, e.a.

Arantxa oso azkarra zen, batez ere zientzia alorretan.

Hor ikasi genuen, bada, Inaxio Sarasuak, Luixito Lizarazuk, Reginok, David Gómarak, Ana Gortarik, Itziar Unanuek... Famili maila onekoak eta ez hain maila onekoak.

Bederatzi urtetan batxilerra egiten hasi nintzen, lehenengo urtea Arantxarekin, bigarre-na Donostiako Miren Bihotza ikastetxean eta hurrengoak karmeldarretan interno hamaika urtetatik hamalaura. Zornotzan pasatu nuen urtea oso esperientzia polita izan zen: beste herrialdetako jendea, euskalki desberdinak, e.a. Han hasi ginen euskara lantzen eta euskal liburuak irakurtzen. Dena dela, txikiagotan Don Inazioarekin ikasten genituen euskal kantak, eta dotrina ere euskaraz izaten zen. Gogoratzen ditut ere Gipuzkoako dotrina-txapelketak. Inoiz eraman ninduten Errenteria eta Donostiara. Dotrina gehien zekienari ematen zioten saria.

Ikasketekin jarraituz, karmeldarretan pasatu nituen hurrengo hiru urteak Nafarroako Alesbes herrian. Prailetarako nindoan, baina, nahiz eta nota onak atera, badirudi ez nintzela oso prailekume zintzoa, eta bota egin ninduten.

Bost urte horiek konbalidatu ondoren, oinarrizko batxilerra lortu nuen. Nik gehiago ikasi nahi nuen. Nere amak ez. Komentutik bota nindutenez, bankuren batetan pintxe gisa sartu nahi ninduten.

Urte hartan anaiek hartzen zituzten arraiak saltzera joaten nintzen goizean goiz Trintxerpera edo Donostiara, eta arratsalde akademian batetara. Honela, bada, bostgarren batxilerra, seigarrena eta errebalida atera nituen, denak urte batean.

Ondoren, jesuita baten laguntza medio, San Inazion, Jesuitetan, PREU ikasi nuen.

1964ean Madrilgo "Colegio Mayor Pio XII" ikastetxean egon nintzen.

Zer-nolako giroa hausnar zitekeen orduan Unibertsitate munduan?

Urte honetan, 1964ean, hasten ziren lehenbiziko manifestazioak; Unibertsitatea nahiko nahasia eta mugitua zegoen.

Gogoratzen naiz otsailean egin zen manifestazio batean egonaz. Honetan, Aranguren, García Calvo eta aurrerago Madrilgo alkatea izango zen Tierno Galván detenitu zituzten beren diskurtsoak, solasak eta arengak eman bait zituzten hantxe. Polizia maiz sartzen zen Unibertsitatean, hemen ematen bait zen borroka.

Baita ere, gogoratzen naiz urte hartan ikusi nituela ETA-koen kontrako lehen epaiketak. Ikastetxean bertan, gotzaiak desterratua zuen Manolo Odriozola izeneko apaiz antiguotar bat zegoen, eta berarekin joaten ginen aipatu ditudan epaiketetara. Akusatuen artean Patxi Iturrioz eta jende gehiago zegoen; defendatzaileen artean berriz, orain PSOE-n dauden Mugica anaiak, e.a.

– Zenbat urte igaro zenituen Madrilen?

Bat besterik ez. Euskalerriko grina eta suak eraginda, etxera itzuli nintzen, garai hartan hain modan zegoen injineritza karreraren sartzeko. Letren arloa ez zen aintzat hartzen orduan, askoren ustez, neskentzako karrerak ziren horiek.




Jesuitetan berriz, bi urte egin nituen. Orduan Zaragozara joaten ginen examinatzerara. Ordurako literatur zaletasunaren pozoina sartua nuen barreneraino, eta nere gogoaz euskaraz ondo idaztea zenez, euskaraz gehien jakin eta irakats zezakeen Koldo Mitxelena zegoen Unibertsitatera joan nintzen, Patxi Altunaren aholkuz, Salamancara alegia. Bertan hiru urtez *"Filologia Románica"* espezialitatea egin nuen.

Azken urtea egiten ari nintzela, Lur argitaletxearen eskutik liburu bat argitaratu nuen. Garai hartan Rikardo Arregi, Gabriel Aresti, Ibon Sarasola eta Ramon Saizarbitoriarekin egoten nintzen.

– Beraz, esan liteke etapa honetan murgiltzen zarela bete-betean euskara eta literaturaren munduan?

Beno, ordurako, 1968an, Euskaltzaindiak Arantzazun euskararen batasuna erabaki zuen biltzarrean izana nintzen. Entzule gisa joan nintzen. Koldo Mitxelenak eraman ninduen. Satrustegi eta Patxi Altunak lan ederra egin zuten, Koldo Mitxelenak eraman zuen ereduari laguntza gehien beraiek eman bait zioten.



Karrera bukatu ondoren, irakaskuntzan hasi nintzen, Donostian lehenbizi eta Errenteriako institutoan gero. Honela igaro ditut hamabost urte.

Literaturari dagokionez, Unamuno saria zeritzan lehiaketan aurkeztu nuen *"Zomorro eta Kaskazuri"* ipuina saritua izan zen. Epaimahaian Gabriel Aresti zegoen. 1968an aurkeztu banuen ere, hurrengo urteko *"Oleri"* liburuan argitaratu zuten.

Hortik aurrera poesia, ipuina, e.a. egin ditut, denetatik zerbait, ikerketa pixkat ere bai. 1975ean esate baterako, lehenbiziko *"Euskal Teatroaren Historia"* argitaratu nuen, *"Sekulorun Sekulotan"* nobela esperimentalak ere bai, bide berriak jorratu nahian edo. Orduan nobela berriaz asko irakurtzen ganuen, gairik eta protagonistarik gabeko nobelak idatzi behar zirela, beste guztia XIX. mendeko kontu zaharrak zirela, eta artean bezala,

bide berriak jorratu behar zirela. Azkenean, uste dut esperimentu aski kaskar bat izan zela hura.

– Argi dago, hortaz, moeta askotako literatura egin duzula. Hau, ipurterre xamarra zarela, ala, aitzitik, idazlearen heldutasun mailaren seinale da?

Ez, ez. Beno, gaur egun badago ohitura bat, hau da, espezializazioaren gaitza. Badirudi teatro-gizonak behar duela soilik teatroa landu, edo nobelista batek nobelak soilik idatzi behar dituela, edo poeta batek bere bizitza osoan, poemak bakarrik. Eta hori gehienetan ez da hala. Badira arlo batetan oso sartuak daudenak, buru-belarri berean. Elaberrian adibidez, batzuk nobela beltza soilik egiten dute, beste batzuk, nobela historikoa, e.a. Baina munduan zehar ikusten baldin baditugu zenbait autore, ohartzen gara denetatik idatzi izan dutela. Cela nobelista da baina saioak baditu, eta baita poesia ere. Eta gauza bera Flaubert batek.

Batzuk diote gazte garaian idazten direla poematxoak eta heltzen denean, edo adin puska bat denean, beste gauza serioagoak, adibidez, nobelak. Nere ustez, poesia oso gauza serioa da, edozein adinetan egin daitekeena. Momentu batzutan gauza bat idazten duzu, eta bestetan beste bat, barrengo grinen arabera.



– Zertan ari zara azken urteotan eta zer darabilzu eskuartean?

Ni orain ez naiz ezer sortzen ari, sorketa kontsideratzen badira jenero konbentzional batzu soilik, hau da, nobela edo poesia. Batez ere testuak prestatzen ari naiz, testu zahar-  
rak biltzen, eta ezezagunak diren testu horiek gureganatzen.

Pentsatzen dut larogei urte izatean ere, idazteko aukera izango dudala.

Tesia ere bide horretatik egin nuen. Nik uste dut euskal literatura ezezagun bat dela, kontsideratzen dudalako autore asko eta asko daudela hor itzalean, inork ezagutzen ez dituenak, eta noski, gauzak erlatiboak direnez, segun eta zer erizpide erabiltzen den ez dira batzuren ustez oso goi-mailakoak izango, baina gure literatura arloan merezi du autore hauetaz ezagutza sakonagoa edukitzea.

Nere tesia XVII. mendeko Donibane Lohitzuneko Pierres d'Urteren hiztegia jasotzea izan zen.

Orain arte uste izan denez, Larramendiren hiztegiarekin hasten da hiztegi gintza 1745. urtean, baina lehenagotik saiatu zirenak ere izan ziren: adibidez, donibandar hau.

Pierres d'Urte hiztegi gintzarako interesgarria den bezala, badira beste autore batzu interesgarriak direnak euskal literaturaren historiarako. Adibidez, lehenbiziko kantu eta bertso bilduma, 1798. urtean egindakoa, argitaratu gabe zegoen. Inork ez zuen ezagutzen. Orduan nik larogeiaren bat orrialdetako estudio bat egin eta argitaratu egin nuen. Bilduma honetan Ternuako kanta, frantsez iraultza garaiko kanta, XVII. mendeko kanta asko, e.a, guztiz ezezagunak jasotzen dira.

– Eta non aurkitu zenituen kanta horiek?

Beno, ni liburutegi xagu bat naizenez, liburutegitan gauzak bilatzen aritzen naiz, eta Pierres d'Urteren hiztegia Ingalaterrako gaztelu batetan aurkitzen zen bezala, hau Baionako Erakustegiaren liburutegian ediren nuen.

– Bilketa lanak, obrak aurkitzeaz gain, ba al du aparteko lanik?

Nahiko lan izaten da transkripzioa egitea, eskuiskribuak irakurtzea zaila izaten baita. Tesia egiten ari nintzela bista ere galdu nuen.

– Oraintxe bertan zertan diharduzu?

Lehen esan dizudan bezala, argitaratu gabeko obra asko eta asko dago, esaterako, XIX. mende erdia, 1853.etik 1897.era, ezagutu gabe dago. Lehiaketa-irabazleak besterik ez ditugu ezagutzen, eta askotan, ez dituzte poema hoberenek irabazten sariak. Hemen ditut, esate baterako, Sallaberry-ren kanta batzu, oraindik argitaratu gabeak, Bereterretxen kantoriaren beste bertso batzu. Orain horiek ikertzen ari naiz.

Chaho-ri buruzko lan bat ere prestatzen ari naiz. Gizon hau lehen abertzale-independentista izan zen, Sabino Arana baino berrogeitamar urte lehenago. Honek "*Uscal Herrico Gaset*a" izeneko lehen euskarazko aldizkaria atera zuen, eta orain honekin ari naiz lanean.

Bestalde, hemen ditut 1870. urtetik 1937.era bitartean idatzitako euskarazko nobela gehientsuenak, batzu inork ezagutzen ez dituenak. Ni obra hauekin hamabost autore desberdinen beste hainbeste nobelaz osatutako edizio bat prestatzen ari naiz. Nahi dudana da mundu guztiak, obra guztiok liburu batetan eduki ditzala, batzuk mesanotxian Biblia duten moduan.

– Aipatu duzu bilduma horretako obra batzu ezagunak diren arren, badaudela ezezagunak ere.

Bai. Hasi "*Garoa*", gero "*Uztaro*", "*Donostia*", "*Patxiku Txerren*", "*Ardi Galdua*", "*Pierres*", (hau denetan luzeena), "*Don Juan eta bere adiskidiak*", guztiz ezezaguna,...

Hor garai bateko egunkariak eta astekariak ondo aztertu behar dira. "*Euskalduna*"-n esate baterako, autore askok eta askok idatzi zuen. Adibidez, Dasconagerrek 1870ean



egindako "Atheke gaitzeko oihartzunak", gure lehenbiziko nobela, "Baigorriko zazpi liliak", Elissanbururen "Pierres Adame",...

Bada Gatz-Errota izenez norbaitek idatzitako nobela bat, inoiz aipatu ez dena. Nere ustez, ezizen horren atzean Pasai Donibanen jaiotako Bitoriano Iraola dago. "Kintoak" da nobela horren izena. "Baserritarra" aldizkarian hamabostero agertzen zen, kintoen abenturak edo istorioak kontatuz. Diputazioko liburutegian eta beste zenbait lekutan dauden aldizkariko aleak bilduz osatzen da nobela hau.

Honela, bada, euskal literaturaren azterketa egiten aritu naiz azken urteotan, errekupe-razio lanetan.

– Jakin dugunez, Patxi Intxaurrendieta eta biok elkarlanean, Lezoko Garbizu anaiei buruzko liburu bat prestatu duzue, ezta?

Bai, Irailerako argitaraturik egongo da gainera. 1921etik 1936ra bitarteko Garbizu anaiei euskal lanak jasotzen dira. Lan hauek garaiko aldizkarietan sakabanaturik zeuden, "El Dia", "Euskal Esnalea", "Argia" eta horrelakoetan. Guk lanok bildu egin ditugu, pixkat txukundu, estudiatu, hitzaurre bat idatzi, eta poemak, ipuinak, izkirimiriak, e.a. zein aldizkarietan zeuden jakiteko aurkibidea egin dugu, besterik ez. Nolabait Lezoko herriari aurkeztu nahi diogu Lezon izan direla idazleak, Tomas Garbizu ez zela musikagilea soilik, idazlea ere bazela; bere anaia Zubigar oso poeta ezaguna zela gerra aurrean. Lezorentzat gerra aurreko giroa errekupe-ratu nahian egin dugu lan hau.

– Euskal literaturan kantitate-kalitate binomioa askotan auzitan jarri ohi da. Nola ikusten duzu zuk?

Nik uste dut hori faltsoa dela eta Euskalerrian topikoek oso bizitza luzea dutela. Esaten da, euskal literatura beranta, eskasa eta orohar kalitate gutxikoa dela, baina zeinekin konparatuta?

Adibidez esaten da gailegoa, euskara eta katalana literatura eta hizkuntza minoriotarioak direla, baina katalaniarrak zazpi milioi dira eta Europan zazpi milioi hitzun duten herrialdeen artean, hamar lehenbizikoen artean egongo da literatur produzioan.

Egia esan, gure literatura gaztelaniakoarekin edo frantsesarekin edo ingelesarekin parekatuz, noski, urria eta eskasa da, ezin daiteke konparatu. Beti galdu behar ez den ikuspegi da hau: Herri txiki bat garela. Eta gainera mila arrazoiengatik ez dela behar adina landu euskara, Euskara herri apalaren kutxa baita.

XV. mendean badira kantalak, Milia Lasturkoarenak, adibidez. Horrek esan nahi du neurri batetan lantzen zutela ahaide nagusiek ere euskara. Galdu egin da asko eta asko eta galdutakoa errekupe-ratu egin behar da ahal baldin bada. Etchepare ale batetan bakarrik kontserbatu da. Eta galdu izan balitz, esango genuke XVI. mendean ez dagoela poetarik. Hori ez da egia. XVI. mendean poeta eta poesia asko izan ditu euskarak, Joanes Larrunbide oiartzuarra esate baterako. Honek poesia ezezik, teatroa ere idatzi zuen. Baina non daude? Bilatzen eta aurkitzen saiatu egin behar da. Hori da kontua.

Kalitateari gagozkiolarik, hau, idazleen profesionaltasunarekin lotuta dago. Zenbat eta kultur maila haundiagoa izan, era berekoa izango da literatura ere.

– Euskalerriko egoera sozialak zer eragin izan du idazleengan?

Gizarteak bere eragina du beti idazleengan, batera edo bestera. Eta noski, idazle batzurengean gehiago agertzen da, beraiek horrela erabakitzen dutelako. Beste batek ez baldin badu gizartea era horretan agertu nahi izan, baina bai beste eragin batez, horrek esan nahi du gizartearen beste islada bat dela, beste ispilu bat. Gizartea ez da homogenea, mila ispilu ezberdin, eta ikuspegi ezberdinetik mila puntadun poliedroa dela esango genuke. Orduan, bada, bakoitzak bere idazteko moduan bere izakerarekin puntu bat, era bat, txoko bat, ixkin bat isladatzen du. Pertsona guztiak ez gara berdinak. Baina, noski, gizartearen parte gara eta orok elkarrekin edo elkarren kontra osatzen dugu gizartea.



– Eragin sozialaz ari garenez, Gabriel Arestik gaur egun izango al luke arrakastarik?

Badu, badu bere arrakasta. Badira pertsona batzu Arestiri buruzko tesiak egiten ari direnak.

Baina, egia esa, frankismoaren garaian, borroka antifaszista bero-bero zegoenean, autore batzuk arrakasta gehiago zuten, poesia moeta hori lantzen zutelako. Beste batzuk baziren euskararen aldetik ezaguera sakonago eta herrikoiagoa zutenak, eta dutenak. Horiek ez ziren hain ezagunak orduan. Beraz, zer gertatzen da? Gauza bat dela idazle batek idazten duena eta beste bat momentuan momentuko komunikabideek zeri ematen dioten garrantzi gehiago. Horrek ez du esan nahi berez, eta baliotan, isiltasunean dagoen autore ezezagunaren balio literarioa esakasagoa denik, egunero oso puntan agertzen den beste batena baino.

– Zer eritzi duzu literatur-sariei buruz?

Askotan literatura lantzeko baino gehiago, banku, aurrezki kutxa eso beste erakunderen baten propagandarako antolatua dagoen zerbait izan arren, hala eta guztiz ere ongariak direla literaturarentzat, idazleak sortu eta bultzatzeko. Idazle onek, konsagratuek, ez dute normalean sarien berririk ere, edo beharrik.

Bestalde, hor dago urtero ematen den Nobel saria, eta hori irabazten duenaren izena goraiatu egiten da leku askotan.

Gerra garaian ere, euskal literaturaren berpizkundea zela eta, bilatzen zen euskal idazlearen bat Nobel sarirako izendatua izan zedin. Hori mundu guztiak onartzen zuen gauza zen, gero sariak ematerakoan bere istilutxoak eta gora-beherak gertatu arren.

– Nola baloratzen duzu estatuko saria Bernardo Atxagari ematea?

Ez dakit berari mesede egin dion, zeren ondoren izugarritzko konpromezuak izan bait ditu eta idatzi gabe pasatu behar izan du ia urte t'erdi. Baina, dudarik gabe, euskal literaturarentzat ongaria izan da. Horrela ohartu dira kanpoan, badela literatura eta estimatzen hasi dira.

Madriilen edo Bartzelonan argitaratzen diren literatur aldizkaritan beti txoko txiki bat behintzat eskeintzen diote euskal literaturari. Eta hori euskararen ezagutzarako eta zabal-kunderako, eta munduan estimatua izan dadin, ongaria da.

– Arlo pertsonalago batetara helduz, hainbeste lan eta proiektu eskuartean duzularik, hartzen al duzu irakurketa pertsonalerako astirik?

Ahal dudan guztia irakurtzen dut, egunean bizpahiru egunkariri ematen diot begirada-txo bat. Askotan ez dut nere intereseko artikulorik aurkitzen. Goizeko bederatzietatik gaueko bederatzietara liburu tartean pasatzen dut. Horrek esan nahi du egiten ari naizen lanari buruzko inguruan dagoen dena irakurtzen saiatzen naizela. Udan, bidaietan e.a. irakurgai xamurragoak aukeratzen ditut: nobela batzuk,...

Zugan, zure idazkeran, zein idazlek izan du eraginik nabarmenena? Zeintzu hartzen dituzu maisutzat?

Hizkuntzalaritza munduan, estilo kontutan agian ez, baina, Koldo Mitxelena izan da nere irakaslea.

Idazle bezala, gaztelaniaz Borges oso gustokoa dut; Frantsesez, Flaubert,...

– Besteak beste, ehun eta hirurogeitasei kide biltzen dituen Euskal Idazleen Elkartearen lehendakari zaitugu. Zer lan betetzen duzu erakunde honetan?

Elkarteak "Hegats" izeneko aldizkaria argitaratzen du eta nolabait, beronen koordinaketa neuk daramat.

Bestalde, Galeuskak direnean, topaketa aurretik Galiziara eta Catalunya joan beharra izaten da, harremanak eduki, bertako hizkuntzen eta literaturaren egoera nolakoa den



ikusi, iritzi trukaketa bat egin eta bideak ipini, edo saiatu behintzat, egoera hobera joan dadin, euskal literatura hobeto aztertzeko kongresuak asmatu, jendea bildu,...

Euskaltzaindian ere literatura eta hiztegi gintza sailetan sartua nago.

– Erreformaz geroztiko lehen udal hauteskundeen ondorioz, herriko alkate ere izan zintugun. Nabaritu al duzu urteotan herrian aldaketa nabarmenik?

Beno, Lezoko horma asko eta asko margoz eta paperez zikinduak daude, baita frontoia ere. Gustatuko litzaidake udaletxea, eliza eta etxe zaharrak, harri landuzko etxe zaharrak, garbi-garbiak egotea, arkitektura eta artea orohar begien bazkarako bait dira, begien gozamenerako, eta ez begiak mintzeko. Alkatetzan egon nintzenean, onartu zen zenbait lekutan propagandarako lauki haundi batzu zintzilikatzea. Hauetan edonork bere iritzia aurkezteko aukera du. Inork ez du gogoko bere etxea besteek zikin dezaten.

Herri giroari dagokionez, etxetik gehiegi ateratzen ez naizen arren, jendearen artean ikusi izan dut batzuren besterenganako errezelo eta ezinikusia. Ez zait batere gustatzen

hori. Nik uste dut herrian ondo dagoela eztabaidak eta sesioak edukitzea, baina beti formak galdu gabe, beti modu egoki batean, gauzak aztertu sakonduz, eta iritzi bati, ideia bati, beste iritzi bat, beste ideia bat kontrajarriz eta arrazoizkoena guztion artean onartu, eta horixe aurrera eramaten saiatu. Pena handia ematen didate herrian ematen diren zatiketek.


– Azkenik, nola dakusazu euskararen egoera?

Itxaropentsu. Itxaropentsu, kontsideratzen bait dut asko

egin dela azken hamabost urteotan, eta oraindik bide asko dagoela egiteko ere bai.

1976an Errenteriako institutoan lan egiten nuenean, euskarazko klaseak nik bakarrik ematen nituen, eta orduz kanpo gainera. Gaur egun instituto horretan eta beste askotan gai guztiak euskaraz ikas daitezke.

Unibertsitatean, orduan, ez zen gai bakar bat ere euskaraz ematen; orain, berriz, berrogeitamar gaitik gora ari dira euskaraz ematen. Poliki-poliki euskararen errekupeazioa maila guztietan egingo dela espero dut, denon laguntza beharko da. Eta pentsatzen dut ere, euskal egunkari bat sortzen denean, irrati eta telebistarekin batera, hauek hobetu badaitezke ere, gauzak gehiago normalizatuko direla eta hogeitalau orduak euskaraz bizitzeko aukera izango dugula.



**JOXE JUAN ORDOKI**  
*Argazkiak: AGUSTIN LIZARAZU*